



PRODUKZIOA



LG-ren esku utziko dugu produkzioa, haiek baitauzkate beharrezkoak diren baliabideak. Hego Korean daukaten fabrika nagusian gauzatuko da **SOUL** produktuen ekoizpena.


Produktu hori gainontzeko LG produktuekin helaraziko dute haien biltegietara, eta ondoren, hiru helmugetara iritsiko dira. % 40 LG-ren denda fisikoetara eta % 60 Amazon-en biltegietara. Gure webgunetik erositako produktuak LG-ren dendetakoak izango dira, SEUL eta bestelako enpresen laguntzarekin iritsaraziko ditugunak eroslearenera.

FUNTSEZKO JARDUERAK

PLATAFORMAKO JARDUERAK

Webgunea egunean mantendu beharko dugu, produktu berriak gehitu edota zaharren bat kendu behar badugu, bezeroen kezka arruntenean erantzunak emansteko, etab.

Ideiaen egokitzapena kontrolatzeaz Unai arduratuko da. Egunero online egin behar diren aldaketak eguneratzeaz gain, produkzioan, produktuetan, etab. adaketaren bat egin behar badugu, hark jakinaraziko digu.



FUNTSEZKO JARDUERAK

Hona hemen bezeroei gerta dakieken arazoei aurre egiteko aurreikusi ditugun moduak:

Webgunean bezeroek izan dituzten arazoak jakinarazteko inprimaki bat atxikituko dugu, arazo arruntenak ahalik eta modu errazenean konponbidea izan dezaten. Bezero batek halakorik bete eta bidaliz gero, Oier arduratuko da erantzuna emateaz.



Are gehiago, webgunean atal bat izango dugu, non bezeroek jakinarazten dizkiguten arazoaren konponbideak azalduko ditugun. Horrela, etorkizunean halakorik errepikatuz gero, zuzenean ikusi ahal izango dituzte soluzioak.

Azkenik, gurekin harremanetan jartzeko email helbide bat eta telefono zenbaki bat ere publikoki ikusgarriak izango dira webgunean.

